# GORABIDE

Nº 310 Zk.
2022EKO URRIA
OCTUBRE DE 2022

ADIMEN DESGAITASUNA | DISCAPACIDAD INTELECTUAL
BIZKAIA


**INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA**

**2023an egonaldien plangintza egitea**
**Planificar estancias temporales en 2023**
pg. 4 or.



**Hezkuntza baliabideak**
**Recursos educativos**
pg. 5 or.



**Triatloi Europako Txapelketa**
**Europeo de Triatlón**
pg. 7 or.

# 60 urte bete ditugu!




# ¡Cumplimos 60 años!





## San Mames argiztatu zen gure 60. urteurrena ospatzeko [6. or.]

## San Mamés se iluminó para celebrar nuestro 60 aniversario [pg. 6]


60RABIDE

ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA
ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
Licenciado Poza 14, 2 - 48011 Bilbao | Tel. 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
gorabide.com | facebook.com/gorabide | twitter.com/gorabide | youtube.com/gorabide | instagram.com/gorabide



Laguntzen du
Colabora
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# Abordamos el presente, pasado y futuro de nuestra aportación a los servicios sociales

El Día Gorabide puso en valor nuestra colaboración con las administraciones públicas y con el resto del tercer sector social, y recuperó la tradicional paraguada festiva

El lehendakari, Iñigo Urkullu, y el alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto nos acompañaron en un Día Gorabide muy especial, por nuestro 60 aniversario. Además, nuestra presidenta, Susana Gorbeña, dialogó con Beatriz Artolazabal, consejera de Políticas Sociales; Sergio Murillo, diputado Foral de Acción Social; y Valeria García-Landarte, directora de Fevas; sobre nuestra contribución al sistema de servicios sociales, en clave de pasado, presente y futuro.

"Gorabide abrió un camino que ha conseguido que las personas con discapacidad intelectual vean reconocido sus derechos", aseguró el lehendakari. "Gracias por habernos tendido la mano para colaborar en buena parte de este recorrido", añadió. Por su parte, el alcalde de Bilbao reconoció: "Mi relación con Gorabide ha sido más que una experiencia profesional o política; ha sido una experiencia vital". Y apostó por "una relación privilegiada entre las administraciones y el tercer sector".

**Pasado, presente y futuro**

Beatriz Artolazabal destacó que "la colaboración público-social está más vigente que nunca, y nos tiene que retroalimentar. Porque, de esa cercanía con el problema, las administraciones nos valemos para poder legislar de una manera más adecuada". Sergio Murillo subrayó que nuestra aportación se basa en "gestionar bien, pero añadiendo un factor de criticidad y perspectiva de usuario en todo el proceso: hacia arriba en la toma de decisión y hacia abajo de despliegue". Y Valeria García-Landarte valoró que somos "un agente fundamental, no sólo en el desarrollo de servicios, sino también en la incidencia en políticas y sensibilización".

> El Día Gorabide de este año ha sido muy especial. Vino el lehendakari y hablamos de las cosas que ha hecho Gorabide por los servicios sociales. Además, pudimos volver a hacer la paraguada.

**Cogobernanza**

Nuestra presidenta abogó por "una cogobernanza con el diálogo social como eje principal para la toma de decisiones". Además, puso el foco en "el valor añadido que aportamos a los servicios de responsabilidad pública", en la importancia de "contar con la visión de las personas usuarias", y en "cómo hacer que sean protagonistas de su vida, no sólo en la teoría sino en la práctica".

Finalmente, Kepa Oyarzabal, uno de nuestros usuarios y formador, dio paso a la paraguada, en la que unas 400 personas visibilizaron que, en algún momento, cualquiera necesitará apoyos, igual que paraguas si llueve.

labur.eus/60rabide











# Gizarte zerbitzuei egin diegun ekarpenaren oraina, iragana eta etorkizuna jorratu ditugu

Gorabide Egunak herri-administrazioekin eta hirugarren gizarte-sektoreekin dugun lankidetza nabarmendu zuen, eta aterkien jai tradizionala berreskuratu zuen

Iñigo Urkullu Lehendakaria eta Juan Mari Aburto Bilboko alkatea izan ziren gurekin, oso berezia izan zen Gorabide Egunean, gure 60. urteurrenean. Horrez gain, gure lehendakariak, Su-sana Gorbeñak, Beatriz Artolazabal Gizarte Politiketako sailburuarekin hitz egin zuen, baita Sergio Murillo, Gizarte Ekintzako foru diputatua, eta Valeria García-Landarte, Fevaseko zuzendariarekin ere, gizarte zerbitzuen sistemari egiten diogun ekarpenari buruz, iraganaren, orainaren eta etorkizuna ardatz hartuz.

"Gorabidek bidea ireki zuen adimen urritasuna duten pertsonek beren eskubideak aintzat hartuak izan ditzaten", ziurtatu du lehendakariak. "Eskerrik asko gurekin harremanetan jartzeagatik eta bidaia honen zati handi batean elkarrekin lan egiteagatik", gaineratu du. Bere aldetik, Bilboko alkateak aitortu du: "Gorabiderekin dudan harremana esperientzia profesional edo politiko bat baino gehiago izan da bizi-esperientzia bat". Eta "administrazioen eta hirugarren sektorearen arteko harreman pribilegiatuaren aldeko apustua" egin zuen.

**Iragana, oraina eta geroa**

Beatriz Artolazabalek azpimarratu duenez, "elkarlan publiko-soziala inoiz baino garrantzitsuagoa da, eta atzera elikatu behar gaitu. Izan ere, "arazoarekiko hurbiltasun horretatik baliatzen gara administrazioetatik modu egokiagoan legeak egiteko". Sergio Murillok azpimarratu duenez, gure ekarpena "ondo kudeatzean oinarritzen da, baina prozesu osoan kritikotasun faktorea eta erabiltzaile-ikuspegia handituz: gorantz erabakiak hartzean eta beherantz hedapenean". Eta Valeria García-Landartek "oinarrizko eragile bat" garela baloratu du, "ez bakarrik zerbitzuen garapenean, baita politiketan eragiteko eta sentsibilizaziorako ere".

**Elkarrekin gobernatuz**

Gure lehendakariak "erabakiak hartzeko ardatz nagusi gisa elkarrizketa soziala duen elkarrekin bideratutako gobernua" defendatu zuen. Horrez gain, «erantzukizun publikoko zerbitzuei ematen diegun balio erantsia» azpimarratu zuen, «erabiltzaileekiko ikuspegia izateak» duen garrantzia eta «beraien bizitzako protagonista bihurtzeko moduez, ez soilik teorian, baita praktikan ere", hitz egin zuen.

Azkenik, Kepa Oyarzabalek, gure erabiltzaile eta prestatzaileetako batek, aterkien jaiari hasiera eman zion, eta bertan 400 bat lagunek argi utzi zuten, noizbait edonork beharko duela laguntza, euria egiten badu aterki bat beharko duen moduan.

> Gorabide Eguna aurten oso berezia izan da.Lehendakaria etorri zen, eta Gorabidek gizarte zerbitzuen alorrean egin dituen gauzei buruz hitz egin genuen.Gainera, euritakotada berriz ospatu ahal izan genuen.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Es el momento de planificar el descanso y respiro familiar en residencia para 2023

Las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia, con edades entre los 18 y los 64 años, y que tengan valorada la dependencia, deben hacer las solicitudes de estancias temporales por lo menos con dos meses de antelación. Por eso, ahora es el momento de ponerse en contacto con la trabajadora social de nuestro equipo BBK SAIOA GORABIDE, para que se les pueda adjudicar en el próximo año 2023 alguna de las plazas temporales de las residencias de personas con discapacidad intelectual de Bizkaia.

Las estancias temporales en residencia están orientadas a proporcionar respiro y descanso a las personas cuidadoras habituales, y también ayudan a las personas con discapacidad intelectual a convivir en un entorno no habitual, proporcionándoles experiencias diferentes. Se puede solicitar plaza por descanso o respiro de la persona cuidadora principal; por urgencias como fallecimiento o enfermedad de la persona cuidadora o familiares de la persona con discapacidad intelectual; traslado u obras importantes en el domicilio; motivos laborales; o imposibilidad o grave dificultad de prestar los debidos apoyos por parte de la persona cuidadora.

La adjudicación de plazas corresponde al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, que hará una valoración previa de cada caso, teniendo en cuenta todas las circunstancias familiares y sociales de cada persona para proporcionar la mejor atención. Desde Gorabide, aportamos cuantos informes sean necesarios además de tramitar las solicitudes en los plazos requeridos. Y las plazas se adjudican por orden de prioridad atendiendo al baremo de necesidad social ISNA (según el Decreto Foral 76/2019).

# Egoitzan familiaren atseden eta arnasaldia 2023an planifikatzeko garaia da

Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonek, 18 eta 64 urte bitartekoa adinean badaude, eta mendekotasuna baloratuta badute, aldi baterako egonaldien eskaerak, gutxienez, bi hilabete lehenago egin behar dituzte. Hori dela eta, gure BBK SAIOA GORABIDE taldeko gizarte-lan-gilearekin harremanetan jartzeko unea iritsi da, 2023. urtean Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetako aldi baterako plazaren bat esleitze aldera.

Egoitzetan egiten diren aldi baterako egonaldien helburua ohiko zaintzaileei arnasa eta atsedena ematea da eta, era berean, adimen desgaitasuna duten pertsonei ohikoa ez den ingurune batean elkarbizitzan egoten laguntzen die, bestelako esperientziak emanez. Arrazoi hauengatik eska daiteke plaza: zaintzaile nagusiaren atseden edo arnasaldia; larrialdi-egoeren ondorioz, esate baterako, zaintzailea edo adimen desgaitasuna duen pertsonaren senitartekoren bat hil egin delako edo gaixo jarri delako; etxebizitzaren aldaketagatik edo bertan obra garrantzitsuak egin behar direlako; lanarekin lotutako arrazoiengatik; edo zaintzaileak ezin duelako edo zailtasun handiak dituelako behar bezalako laguntza emateko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari dagokio plazak esleitzea. Aipatu sailak kasuan-kasuan balorazio bat egingo du aldez aurretik, pertsona bakoitzak familiari eta gizarte-harremanei dagokienez dituen inguruabarrak kontuan izanik, ahalik eta arreta onena emanez. Gorabidetik behar beste txosten helarazten ditugu, eskaerak eskatutako epeen barruan izapidetzeaz gain. Eta plazak lehentasunaren hurrenkerari erre-paratuz esleitzen dira, ISNA gizarte premiaren baremoari so (76/2019 Foru Dekretuari jarraikiz).

**Servicio
BBK SAIOA GORABIDE
Zerbitzua
Tel. 94 453 90 86**

# Hezkuntza baliabideei buruzko webinario bat eskaintzen dugu

## Zurekin Programak web hitzaldien ikastaro berri bat abiatuko du, familiek eskolatzeari buruz izan ditzaketen zalantzak ebaztera bideratutako saio batekin

Familiak eta eskolak erantzukizunak partekatzen dituzte, elkarlotu egiten direnak laguntza-sare bat sortzeko. Lankidetza horretan, senitartekoek edo zaintzaile eta tutore zein irakasleek esku-hartzen dute adimen desgaitasuna duten haurren hezkuntza-arretari eta eskolatzeari begira elkarrekin lan eginez.

Eskolatzeak halako galderak sorraraz ditzake: Zer zentro da egokiena? edo Zer laguntza mota egon daitezke heziketaren ikuspegitik? Zalantza horietako zenbait ebazteko, gure Zurekin Programak hirugarren webinario ikastaroa abiatuko du urriaren 13an, pedagogia terapeutikoan aditua den Marga Villegas eta psikopedagogoa den Ana Carolina Ricciren eskutik garatuko den saio batekin, adimen desgaitasuna duten pertsonen senitartekoek, Bizkaiko eskola eta ikastetxe batzuetan, haur hezkuntzatik DBH arte erabilgarri dituzten hezkuntza-baliabideei buruz hitz egingo dutenak.

**Ikasgela egonkorra**

Aukera baliatuko dugu, beren esperientzia ez ezik, adimen desgaitasuna duten ikasleekin ikasgela egonkorrean burutzen duten lana zein den jakiteko, eta kolektibo hori zenbateraino gizarteratzen den eta eskolan zer mailako inklusioa ematen den jakiteko. Halaber, aurkezpenean zehar sortzen diren zalantza eta galderak ebazteko aukera izango dugu.

**Izena emateko:**
gorabide.com/charlas-web.




# Ofrecemos un webinario sobre recursos educativos

## El Programa Contigo inicia un nuevo curso de charlas web, con una sesión dedicada a resolver las dudas que pueden tener las familias sobre la escolarización

La familia y la escuela comparten responsabilidades que se enlazan para crear una red de apoyo. En esa colaboración, intervienen familiares o personas cuidadoras y tutoras y el profesorado, trabajando en común hacía la atención educativa y la escolarización de las niñas y los niños con discapacidad intelectual.

La etapa de escolarización puede generar preguntas como: ¿Qué tipo de centro es más apropiado? o ¿Qué clase de ayudas educativas puede haber? Para resolver algunas de esas dudas, nuestro Programa Contigo inicia su tercer curso de webinarios el 13 de octubre, con una sesión a cargo de Marga Villegas, especialista en pedagogía terapéutica, y Ana Carolina Ricci, psicopedagoga, que hablarán de los recursos educativos que tienen las familias con un miembro con discapacidad intelectual, en algunas escuelas y colegios de Bizkaia, desde etapa infantil hasta la ESO.

**Aula estable**

Aprovecharemos para conocer su experiencia y trabajo en el aula estable con alumnado con discapacidad intelectual, así como el desarrollo inclusivo a nivel social y escolar de ese colectivo. Así mismo, podremos resolver las dudas y preguntas que surjan durante la presentación.

Las personas interesadas en apuntarse a esta charla web pueden hacerlo a través de este enlace a nuestra web: gorabide.com/charlas-web.

# San Mames gure logotipoarekin argiztatu zen, gure 60. urteurrena ospatzeko

## Gainera, Gorabideren ordezkari bat gure urtebetetzeari dagokion eguneko partiduan palkora gonbidatu zuten

Irailaren 13an, gure elkartea sortu zeneko 60. urteurrena izan zen. Hori dela eta, gau hartan San Mameseko kanpoaldea argiztatu zuten gure logoarekin, eta estadioaren kanpoaldeko pantailak urteurrenari erreferentzia egin zion irudi bat proiektatu zuen. Gainera, egun horretako partiduan Gorabideren ordezkari bat palkora gonbidatu zuen zuzendaritza batzorde zuri-gorriak. Ordezkaritza gure lehendakari Susana Gorbeñak; Txema Franco zuzendari gerenteak; eta Izaskun Cerrato eta Óscar Bárcenas, gure elkarteko erabiltzaile diren eta Genuine Ligan jokatzen duten Athletic taldeko kideek osatu zuten.






“Eskerrak ematen dizkiogu Athletic Clubi gure entitatearentzat hain garrantzitsua den urtebetetze ospakizunean bat egiteagatik, hain ekintza polit eta hunkigarriekin”, nabarmendu du gure lehendakariak. “Ilusio handia piztu zuen gurean San Mameseko palkoan Gorabide ordezkatzeak”, bat datoz Izaskun eta Oscar.

# San Mamés se iluminó con nuestro logotipo en la celebración del 60 aniversario

## Además, una representación de Gorabide fue invitada al palco en el partido de la jornada correspondiente a nuestro cumpleaños

El 13 de septiembre, se cumplieron 60 años de la fundación de nuestra asociación. Por ese motivo, el exterior de San Mamés se iluminó esa noche con nuestro logotipo, y la pantalla exterior del estadio proyectó una imagen alusiva al aniversario. Además, en el partido de esa jornada, una representación de Gorabide fue invitada al palco por la junta directiva rojiblanca. La delegación estuvo formada por nuestra presidenta, Susana Gorbeña; el director gerente, Txema Franco; e Izaskun Cerrato y Óscar Bárcenas, personas usuarias de nuestra asociación e integrantes del equipo del Athletic que juega en la Liga Genuine.

“Agradecemos al Athletic Club que se haya sumado a la celebración de un cumpleaños tan importante para nuestra entidad, con acciones tan bonitas y conmovedoras”, destaca nuestra presidenta. “Nos ha hecho mucha ilusión estar en el palco de San Mamés representando a Gorabide”, coinciden Izaskun y Óscar.

# Triatloiko Europako Txapelketan lagundu dugu

# Colaboramos en el Europeo de Triatlón Multideporte



Dagoeneko 11 urte daramatzagu Bilbao Triathlon probako anoa-guneetan Inneventorekin, proba hori antolatzen duen enpresarekin (eta gure Gorakideetako bat), kolaboratuz. Aurten, Kirol Anitzeko Triatloiko Europako Txapelketan parte hartzera ere gonbidatu gaituzte. “Gorabide beti izan da Bilbao Triathloneko parte, eta ezin du Europako Txapelketatik kanpo geratu”, ziurtatu zuen Ekitaldien Antolaketako zuzendaria den Alberto Larruceak.

Lankidetza horren ondorioz, Basauriko Arteagoiti, Gueñeseko Arangoiti eta Getxoko Santa Eugeniako gure egoitzetako, Bilboko gure Autonomia etxebizitzako eta Partaidetza Asoziatibo gure taldeko adimen desgaitasuna duten 40 pertsonek hainbat zeregin bete dituzte. Esate baterako, dominak banatu dituzte eta anoa-guneetan egon dira lasterketan zehar eta probaren amaieran, bai irailaren 17an eta 18an Bilbon egindako duatloiko lehiaketetan, eta baita hilaren 24an jokatutako Bilbao Triathlon proban.

Ya llevamos 11 años colaborando en los avituallamientos del Bilbao Triathlon con Innevento, la empresa que organiza esa prueba deportiva, y uno de nuestros Gorakides. Pero este año también nos han invitado a participar en el Campeonato de Europa de Triatlón Multideporte. “Gorabide siempre ha sido parte del Bilbao Triathlon, y en el Europeo no puede quedarse fuera”, aseguró Alberto Larrucea, director de Organización de Eventos.

Fruto de esa colaboración, 40 personas con discapacidad intelectual de nuestras residencias Arteagoiti de Basauri, Arangoiti de Gueñes y Santa Eugenia de Getxo, de nuestra vivienda Autonomía de Bilbao y de nuestros grupos de Participación Asociativa han realizado diferentes tareas como la entrega de medallas y los avituallamientos de las carreras a pie y de fin de prueba, en las competiciones de duatlón realizadas en Bilbao los días 17 y 18 de septiembre, y en el Bilbao Triathlon celebrado el día 24.

## LABURRAK BREVES

### Marrazkien erakusketa

Azaroaren 2an, asteazkenez, arratsaldeko 18:30etan, gure 60. urteurrenaren ondoriozko eskolako marrazki-lehiaketako erakusketa inauguratuko dugu, BBK Kunan (Urazurrutia 3, Bilbo). Ekitaldian ikastetxe partehartzaileak izango dira, eta lan irabazleari saria emango zaio. Erakusketa hilaren 23ra arte izango da ikusgai.

### Exposición del concurso de dibujo

El miércoles 2 de noviembre, a las 18:30, inauguraremos la exposición del concurso de dibujo escolar de nuestro 60 aniversario, en BBK Kuna (Urazurrutia nº 3, Bilbao). En el acto, estarán presentes los colegios participantes, y se entregará el premio al trabajo ganador. La muestra permanecerá hasta el día 23.

### Gure ezagutza partekatzen dugu

Asturiasko Fraternidad elkartea gure Gueñeseko etxebizitza eta egoitza bisitatu du, bi zerbi-tzu horietan ematen dugun laguntza eta antolaketa eredua zein den ikusteko. Miren Sautok, egoitzako erabiltzaile batek, egin zituen anfitrioi eta gidari lanak.

### Compartimos conocimiento

La asociación Fraternidad, de Asturias, ha visitado nuestra vivienda y nuestra residencia de Gueñes, para conocer el modelo de apoyos y organización que tenemos en ambos servicios. Miren Sauto, usuaria de la residencia, ha sido la anfitriona y guía.

GORABIDE
OCTUBRE DE 2022 | Nº 310 Zk | 2022EKO URRIA

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).



**Lanestosako Udalak bat egin zuen gure 60. urteurrenaren ospakizunarekin, gure Isasti Egoitzako ordezkaritza bati harrera instituzionala eginez, San Roke jaien barruan.**

**El Ayuntamiento de Lanestosa se sumó a la celebración de nuestro 60 aniversario, con una recepción institucional a una representación de nuestra Residencia Isasti, coincidiendo con las fiestas de San Roque.**

# PARTAIDETZA ASOZIATIBOA

Urrian, **Zurekin Programaren** barnean, hezkuntza-baliabideei buruzko webinario bat eta mindfulnessi buruzko tailer monografiko bat eskainiko ditugu. Halaber, Urdaibai Bird Center izenekora txangoa antolatuko dugu, Ondo Pasa Familian programaren barruan. Eta Kafeak Kide Artean izango ditugu anai-arreba eta koinatuentzat, eta pertsona heldu zein gazteen gurasoentzat. Gainera, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, adimen desgaitasuna duten pertsonen senitartekoentzat garapen eta ongizate pertsonalerako **Ongizate Programa**ren bosgarren edizioa abiatuko dugu.

**Informazio gehiago eta izen-emateak:**
Emma Ballús. Telefonoa 94 443 12 10
emmaballus@gorabide.com

## GIZARTE-ERALDAKETA

- Durangoko Maristak Ikastetxean saioa.
- Argia Fundazioko urteko sentsibilizazio-jardunaldia.

## AUTOGESTIO PROGRAMA

- Asteazkena 19, 18:00etan. Barrainkua kalea, 5.
- Osteguna 20, 18:30etan. Barrainkua kalea, 5.

# PARTICIPACIÓN ASOCIATIVA

En octubre, dentro de nuestro **Programa Contigo**, ofreceremos un webinario sobre recursos educativos y un taller monográfico de mindfulness. También organizaremos una excursión al Urdaibai Bird Center, dentro del programa Diviértete en Familia. Y tendremos Cafés en Compañía para hermanas/os y cuñadas/os, y para madres y padres de personas adultas y de jóvenes. Además, iniciaremos, en colaboración con la Universidad de Deusto, la quinta edición del **Programa Ongizate** de desarrollo y bienestar personal para familiares de personas con discapacidad intelectual.

**Más información e inscripciones:**
Emma Ballús. Teléfono 94 443 12 10
emmaballus@gorabide.com

## TRANSFORMACIÓN SOCIAL

- Sesión en Maristak Ikastetxea de Durango.
- Jornada anual de sensibilización de Fundación Argia.

## PROGRAMA DE AUTOGESTIÓN

- Miércoles 19, a las 18:00. c/ Barrainkua nº 5.
- Jueves 20, a las 18:30. c/ Barrainkua nº 5.

D.L./L.G. BI-394-2014